

OSTIRAL HONETAN DANTZA FILMA BASTERON, URKI DANTZA TALDEKOEN PARTAIDETZAREKIN

Euskal ekoizpenak ikusle asko bildu ditu zinema aretoetan. Andoaindarrek Bastero Kulturgunean ikusteko aukera izango dute urtarrilaren 11n, iluntzeko 20:00tan hasita. / 16

TXINTXUA FILMS

Edukiontzi grisa

Andoaingo Udalak herrigune osora zabalduko du errefusa biltzeko edukiontzia / 6

Juanma Moralesi
elkarrizketa,
fisioterapeuta
onenaren saria
jaso berrian / 12-13



Iritzia:
Marta Trubxuelo,
Udal artxiboa

Iritzia:
Leire Esnaola,
Urki dantza taldea

ATE IREKIAK

DBH (Batx. / DBH-ko eraikina)
HH/LH (HH/LH-ko eraikina)

URTARRILAren 26an 11:00etan

Matrikulazio epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

+ INFO www.magaleikastetxea.eus
943 55 17 82 (HH - LH) / 943 55 17 89 (DBH - BATX.)



ZABALIK

MARTA TRUTXUELO EMILIO TRUCHUELOREN ALABA ETA ANDOAIN UDAL ARTXIBOKO LANGILEA



Mila irudi, milaka istorio

Helburua beteta... eta gaindituta! Basteron amaitu berri den argazki-erakusketaren arrakasta sorpresa atsegina izan da. Ez dut apaltasun faltsuaz hitz egingo, erakargarria izango zela espero genuela adierazten badut. Hor ditugu aurrekariak: Moises San Joserren Andoaingo 1950eko hamarraldiko erakusketa, Andoain 1615-2015 argazki liburua, Itxaso Mendiluzek emakumeen ingurukoa antolatu zuena... Argazkiak erakusteak arrakasta ziurtatzen du, baina Truchuelo anaien azken erakusketarekin gure aurreikuspen onenak gainditu dira.

Andoaingo Udal Artxiboko Fototekan egiten dut lan; gustoko dudana lana da, atsegina, baina baita zaila eta zorrotza ere. Negatiboz negatibo digitalizatu, zenbakitu, deskribatu... eta

erakusketa prestatzeko beste pausu bat gehiago eman behar zen. Eta hori zailena zen: aukeraketa egitea.

Irudiak ez dira ausaz hartu, baina era berean horrek berak zenbait argazkiei balio erantsia eman die, orain dela gutxi desagertu diren bizilagunen kasuan. Andoaindarrak gure objektiboaren protagonista izan dira, Andoain egiten dutena, Andoaini bizia ematen diotena. Nire familia ere, andoaindarra izanik, protagonista bihurtu dut, eta ni neu ere argazkien artean ezkutaturik aurkitzen naiz.

Erakusketa egin izana oparia izan da. Jende askok zorionak eman dizkigu, egin diegun "opariagatik" eskerrak emanez. Emilio gure aitak eta osaba Ramonek oparitu ziguten altxorrari zelofanezko papera jartzearen parekoa izan da erakusketa antolatzea.

Etengabea izan da jendearen joan etorria Basteroko gelara hilabete luze honetan.

Andoaindarrak irudien aurrean jarri eta irribarreak, oroitzapenak eta solasaldiak sortu dira... Klean entzun da "erakusketa ikusi al duzu?" Ume batek oparia irekitzean ipintzen duen sorpresazko aurpegiaren parekoa.

Behin, aita eta biok Bastero erakusketa gelan geundela, neska gazte bat hurbildu zitzaigun eta aitari esan zion: "Emilio, begira, konturatzen al zara jende pila biltzea lortu duzula?" Oparirik hoberena partekatzen dena da.

Familian egindako lana. Irekiera ekitaldia egin zen egunean urduri nengoen. Urduritasuna zalantzak jota, publikoaren erantzunagatik baina baita nire familiaren harreragatik ere. "Bikaina!", nire aita bezalako pertsona zorrotz baten ahotan entzutea

oparirik hoberena izan zen. Urte luzez Andoain "Truchuelo" aipatu eta argazkilaritzarekin lotzen genuen; gaur egun nire familian argazkilariak beste batzuk dira: Maddi eta Rober, nire anai-arrebak, eta Nerea eta Miren, nire lehengusinak. Ni neu argazkiekin lan egiten dudana naiz: eskaneatu, katalogatu, gorde eta kontatu: 1.000 iruditik gora erakusketa honetarako. Eta lehen astean 1.500 bisitalditik gora zenba dezaket.

Zenbakiak kontutan hartu beharrekoak dira, hainbat istorio labur kontatzen dizkigutela: Andoaingo istorioak ia berrogeita hamar urtean zehar. Hautatzea lanik zailena da, baina aukeratzekotan argazki pare bat gogoan gordeko nituzke: erakusketa aretoko sarreran familia guztiarekin atera genituenak, eta album baten inguruan –hainbat oroimen partekatuz– andoaindarraren irudiarena.

Basteron bildutako hiru iritzi



MARISOL SUESKUN

"Zoragarria da erakusketa, oso oroitzapen goxoak berpiztu dizkidalako. Ahizpa eta biok erakusketako argazkirik zaharrenetan agertzen gara. Argazkien eskaera egiteko aukera ematen digute, gainera".



ANTONIO LOPEZ

"Nor ez da jarri noiz edo noiz Truchuelo anaien objektiboen aurrean? Amaren eskutik euren estudioa dotore-dotore joan izan gara gaztetan, jaunartzea edo antzeko gertakizun bereziren bat izan aldiko".



EBA TOMASENA

"Alaba eta biok ari gara erretratuak banan-banan errepasatzen, eta orain arte senarra bitan topatu dugu, gazteagoa zeneko irudietan. Aberasgarria da horrelako erakusketa bat herri batentzat, norbanakoaren oroimen partikularraz gain kolektiboa ere biziberritzen laguntzen baitu".





Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren
Biloba



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa



ERREDAKZIO MAHAIA

AIURRI ERREDAKZIO TALDEA

Gertaera bere testuinguruan

ANDOAIN. 2019-01-06. 00:55. WWW.AIURRI.EUS GUNEAN ARGITARATUA:

Esaten denaren eta esan nahi denaren artean alde handia dago, eta gaurkoan Andoainen horrelako zerbait gertatu dela esan daiteke. Gaztelania erabat menderatzen ez duen pertsona arrunt bat, Udaletxeko balkoira igo eta mikrofonoaren aurrean eta dozenaka lagunen aurrean jarritakoan nahastu egin da. 'Benetako erregeak gurasoak dira' adierazi du, egunerokoan kontutan hartu edo maite behar ditugunak etxekoak (gurasoak, senideak) direla esan nahi izan duenean. Anekdotak hutsean gera zitekeen, baina Andoaingo Baltasarrek bota duen esaldia hainbat bideotan grabatuta geratu da, eta horren zabalkundeak gainerakoa egin du. Sare sozialen garaian, txispa edonon eta edozein unetan zabaldu daiteke trending topic bilakatzeaino. Gaurkoak Andoaingo mugak zeharkatu ditu, eta estatu mailako albistea bilakatu da.

Gertaera testuinguruan jarritz, Baltasar paperean aritu den pertsona ez da Andoainen bizi baina herriko ikastetxe batean ikasten duen haur baten aita da. Kabalgata hasteko ordu gutxiren faltan, antolatzaileak errege magorik gabe zeudela, Baltasarren senitartekoekin harremanetan jarri ziren. Pertsona honi proposatu zioten langintza horretan aritzea, eta azkenean Andoainera hurbildu da Baltasarren paperean aritzeko. Aurretik inolako entsegu edo prestaketarik egin gabe, hainbat ordu eman ditu prozesioan: prestaketa lanetan, kabalgatan zaldi gainean, udaletxeko balkoian eta ondoren haurrei muxuak eman eta argazkiak ateratzen. Udaletxeko balkoiko adierazpena eta gero, hainbat pertsonen mikrofonoaren aurrean esan duena aurpegiaratu diote Baltasarri. Hau, nonbait, bere azalpenak ematen aritu da eta azkenerako lehen planoan agertzen den bideoa grabatu du argibide zehatzak emanez. Gaizki ulertzea izan dela, eta etxekoak direla zaindu behar ditugunak. Hori adierazi nahi izan duela.

Aiurrik, urte osoan bezala, herriko gertaera asko jasotzen ditu argazki, bideo eta kroniken bidez. Ia unean uneko transmisioa egiten du sare sozialen bitartez. Sare sozialak unean unekoa zabaltzeko dira, eta Aiurrik hori egiten du beste tokiko hedabide askok bezalaxe. Dagoeneko famatua den esaldiaren eszena hori gertatu denean Aiurriko kazetari bat bertan zen, eta bertatik zabaldu da esaldi horren bideoa. Aiurriko kazetaria, gehiago jakin nahian, Baltasarrengana gerturatu da eta haren bertsioa entzun du. Baltasarri Aiurrin adierazpenak egiteko aukera eskaini zaio, nahi izatera elkarriketa baten bidez. Une horretan ez da hitzordua zehaztu baina datozen egunetarako hitzartu dira. Solasaldia eta gero, Aiurrik albistea editatu du Baltasarren bertsioa erantsiz. Bitartean, Aiurriko bideoa eta Goikoplazatik grabatutako bideo gehiago, bolo-bolo zabaldu dira sare sozialetan eta estatu mailako hedabide nagusietan. Duela minutu gutxi Aiurrik bideoa sareetatik kentzea erabaki du, eta arrazoia honakoa da: Unean uneko gertaera zabaltzeko zentzu informatiboa zuelako, bideoa zabaltzea erabaki du. Bideoak ordu gutxira informazioarekin zerikusirik ez zuen beste zereginetarako erabiltzen zela ikusita, Aiurriko denbora lerrotik kentzea erabaki da.

Gertaera, lehen unetik, atsekabez bizi izan dute antolatzaileek. Orduak aurrera joan ahala, Baltasarren paperean aritu diren senideak haserre eta kezkatuta agertzen dira. Berezik, gaiak hartu duen dimentsioarekin. Ezustean eta azken orduan Errege Magoaren paperean jarri dena pertsona arrunta baita.

* URTARRILAREN SEAN PIZTU ZEN GEHIGIZKO ZARATA MEDIATIKOAREN ERDIAN, AIURRI.EUS WEBGUNEAN ERREDAKZIO TALDEAK GAUERDIAN ARGITARATU ZUEN ALBISTEA BERE HORRETAN TXERTATZEA BEHARREZKO IKUSI DU.

POSTONTZIA

MELTXOR ETA GASPAR ANDOAINGO ERREGE MAGOEN KABALGATA

Meltxor eta Gaspar erregeen gutuna

"Gabon Baltasar!! Zure lagunok idazten dizugu, gaur arratsaldean Andoaingo kaleetan zehar zurekin batera ibili garen Meltxor eta Gaspar.

Goiza trakets hasten da, antolakuntza zailtasunekin. Ohiko Baltasar lanak egiten dituen pertsona gaixo dago, gripeak jota aurtengoan parte hartu ezinik. Zuregana jo dugu Baltasar, goizeko 10:00ak aldera gu biokin Andoaingo kaleetan zehar ateratzerik ote zenuen galdezka. Gure sorpresaz Baiezkoa eman diguzu, azken orduan sortutako emergentzia bati babesa emanez, herri bateko errege kabalgatari osotasuna emanez, herriarekiko konpromisoa hartuz.

Zure egunerokoa hala moduz antolatuta Andoainera etorri zara, seme txikiena sukarrarekin edukitzeak ere atzera bota ez zaituenean. Familiarekin bazkalostea labur eta 16:00tarako puntual zinen gurekin, eskertzeko benetan.

Dagozkigun jantziez atondu eta gero San Juan Bautista zaharren egoitzara jaitsi gara ilusioz beteta, bertan itxaroten gintuzten "barruak" astintzeko

asmoz. Baltasar, zu izan zara denetan maitatuena, gehien bilatzen zutena, gehien besarkatu nahi zutena. Zure irribarreak asko adierazten zien bertakoei, irrintziak batean, algarak bestean. Momentu delikatuak pasa ditugu Zaharren Egoitzan baina ilusioa garaile atera da, bai helduengan, bai guregan, bai zuregan Herria zain genuela, hirurok kotxean sartu eta Zumea plaza aldera abitu gara, orain bai, urduri xamar. Zumeatarrak elkartean sartu garenerako zurekin argazkia ateratzeko prest zeuden neska-mutil asko genituen inguruan, Baltasar!!! Baltasar!!! esaten zuten. Zurekin ilusionatuak zeuden eta erantzun bikaina eman diezu, argazkia eta besarkada.

Hau hasi besterik ez da egin, zaldi gainean igo gaituzte eta aurrera!! Jendea gure zain dago, Meltxor, Gaspar eta Baltasarren zain, hiruron zain, hirurok zabaltzen dugun ilusioaren zain. Herriko kaleetatik barrena abiatu gara, bertaratuak zeuden pertsona guztiak agurtuz, goxokiak banatuz, Errege Egunaren

etorrera zabalduz. Atzean zoaz Baltasar baina gertu sumatzen zaitut, zure agurrak, zure izena askotan entzuten dut, zure izena gertu entzuten dut.

Arratsalde amaitzeko Udaletxean elkartu gara. Prestatzeko denbora ere eman ez dizun diskurtsoarekin hasi zara. ilusioa sentitzen da Plazan, jendeak gustura entzuten zaitu. Diskurtso amaieran, hizkuntzaren zailtasunak direla medio, gaizki ulertua sortu dezakeen esaldia zabaltzen duzu. Edonori gertatzerik zitzaion, baita guri ere. Honek ez du kentzen zuk gaurkoan zabaldu duzun ilusioa, zuk gaurkoan eman diguzun klase magistrala, pertsona konprometitua izatearen klase magistrala. Goizean poztu egin gaituzu zure baiezkoa entzutean, San Juan Bautista Zaharren egoitzako helduak txoratzen utzi dituzu (baten bat emozionatua eta guzti) eta garbi dago ere Andoaingo kaleak ilusioz zipriztindu dituzula.

Zurekin gaude Baltasar, pertsona ona zarelako, besteentzako mundu on bat nahi duzulako eta gaurkoan Errege eguneko ilusio zabaltzaile izan zarelako Andoaingo herrian. Muxu handi bat Meltxor eta Gaspar Errege Magoen partetik!!!".

ANDOAINGO UDALA HEDABIDEETARA BIDLITAKO BALORAZIOA

Kabalgataren polemikaren harira

"Larunbata iluntzetik Andoaingo herriaren inguruan sortu den polemika berri honen harira, Andoaingo Udalak bere atsekabea agertu nahi du gaiak hartu duen dimentsioagatik, eta kritiken tonoarengatik eta norabidearengatik. Hizkuntza bat ez menperatzearen

ondorioz egiten den hankasartze batek, pentsatzen ez genuen oihartzuna izan du. Tristura handia hartu dugu eta oso kezkatuta gaude, sare sozialetan eta komunikabide ezberdinetan gaia jorratzerakoan, nagusitu diren aurreiritzi arrazista eta xenofoboek izandako

lekuagatik. Andoain herri anitza da, aniztasunean bizi da, eta horrela bizi nahi du. Baltasarren funtzioa betetzeko ardura hartu zuen pertsonari eta bere senideei gure elkartasuna eta babesa adierazi nahi diogu.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiogu La Salle Berrozpe ikastetxeari, urtero erregeen magia gure kaleetara ekartzeagatik. Ehunka bolondresak egiten duten lanaren ondorioz aurrera ateratzen dena".

PROTAGONISTA

"Bilboko eta Baionako kaleak jendez lepo ikusi nahi ditugu"

SARE HERRITARRA BETERRI-BURUNTZA

Jon Ander Ubeda URNIETA

"Orain presoak" lemapean, Sarek manifestazio bana deitu du Bilboko eta Baionako kaleetan. Bilbora joateko autobusak antolatu dira. Andoaindik 14:45ean irteera Makaldegitik, eta Urnietatik ordu berean Matxo taberna paretik.

"Orain presoak" dinamikarekin, urtarilaren 1ean taldeko argazkia atera zenuten Adarran. Andoaindik eta Urnietatik jende asko espero al duzue asteburuko manifestazioetan?

Bilboko eta Baionako kaleak jendez lepo ikusi nahi ditugu, ezin gehiago. Kaleak bete estatu-erakunde askotan nagusi den gorrotoa eta mendeku-gosea amaitzeko. Manifestazioa isila izango bada ere, presoan eskubideen aldeko oihu, aldarri ezin ozenagoa izatea nahi dugu, espetxe-politika aldatzeko nahia eta konpromisoa duten milaka pertsonen topagune. **Zein da inguruko presoan egoera?**

Orotara, 26 preso daude eskualdean: Andoainen 2, Astigarragan 1, Hernanin 16, Lasarte-Orian 3 eta Usurbilen 2. Askotarikoa da horien egoera. Ibon Fernandez lasartearrak esklerosi



Sare taldeko kideak sentsibilizazio lanetan aritu dira azken egunetan. AIURRI

anizkoitza du, eta Gari Arruarte hernaniarrak endekapen-espondilitia. Beraz, gaixotasun larri horiekin, libre beharko lukete. Jose Javier Zabaletak hernaniarrak 28 urte daramatza espetxean. Frantzian preso egondako denbora kontuan hartuz gero, berak ere libre beharko luke. Jose Luis Agirre astigarragatarrak 22 urte eta Jabi Gallaga lasartearrak 21 urte. Zigorraren 3/4ak beteta dituzte zenbait presok, eta, horrenbestez, libre beharko lukete.

Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga usurbildarren 2 urteko alaba, espetxean jaio

zen, eta bertan bizi da amarekin. Hainbatek seme-alabak dituzte. Ama edo aita ikusteko ehunka kilometroko bidaiak egin behar izaten dituzten motxiladun haurrak dira. Euren eskubideen erantzule eta bermatzaile diren administrazioek urratzen dituzte, hain justu eta behin eta berriz, eskubide horiek. Noiz arte perbertsio

LARUNBAT HONETAN BUSA ANDOAINGO MAKALDEGITIK ETA URNIETAKO MATXO PARETIK IRTENGO DA

politiko eta arduragabekeria hori?

Oro har, Euskal Herriitik urrunen dauden espetxetan daude guztiak, besteak beste, Kordoban, Sevillan, Lannemezan-en, Algecirasen, Reau Sud Francilien-en, Almerian, Granadan edo Jaenen. Alegia, 800 kilometrora baino gehiago.

Eta senideena?

Adin handiko ama-aitak, bikotekideak, anai-arrebak, ilobak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak... senide guztiek jasaten dute urrutze politika. Urtez urte, astebururo errepidez errepide ibili beharrak arrisku bizia dakar, eta ondorio latzak. Urrutze politikak 16 hildako eragin ditu dagoeneko. Gaur-gaurkoz aitortzarik ez duten 16 biktima.

Herritarren inplikazioa zenbaterainokoa da garrantzitsua?

Berebiziko garrantzia du herritarren inplikazioak. Urte luzetan posible izan ez dena, egin dezagun posible orain denon artean.

Larunbat honetako aldarrikapen nagusia zein izango da?

Konponbiderako premiazko agenda aldarrikatzea. Hots, gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoak eta 70 urte baino gehiago dituztenak aske uztea, preso guztiak Euskal Herriko espetxetara hurbiltzea, lehen gradutik bigarren gradurako progresioa, Frantzian betetako zigorrak kontutan hartzea eta espetxe-alorreko eskumenen transferentzia lortzea.

HAU ERE BADUGU!

2015ean Andoaingo alkategai izan zen politikoaren txioa



Urtarrilaren 5ean, Errege Kabalgatan izan zen gertaeraren polemikaren erdian, Asun Guerra PP alderdiko kideak Twitter bidez txio hori zabaltu zuen. Bazterrak nahastea helburu zuen. Udal politikagintzan aritu den zinegotzi batek soberan jakin beharko luke Udalak ez duela kabalgata antolatzen, ikastetxe batek baizik. Txioak kritika ugari jaso zituen, tartean, andoaindar batzuren.

Sare sozialen erabilera makurra, urtarilaren 5etik 6ra



Andoaingo irudia zikintzeko askoren joera ez da berria, baina hala eta guztiz ere harrigarria da elkarren artean zerikusirik ez duten gaiak nahasteko hainbatek erakusten duten joera nekagaitza. Txio horren egilea kazetaria "omen" da, eta Twitterren 5582 jarraitzaile ditu. Txio honek zalaparta eragin zuen, aldeko eta aurkako erreakzioak eraginez.

Sare sozialen erabilera makurra ikusi zen, urtarilaren 5etik 6ra.

DATUA

Zabalkundea

Andoaingo Baltasarren adierazpenaren harira, igande arratsaldean Meltxor eta Gaspar erregeek idatzitako gutuna azkar batean zabaltu zen: Facebook sarean 632 aldiz parкетatu zen, zabalpen handia lortuz. Baita Twitter sarean ere, albistea bera 124 aldiz bertxiokatuz. Gutunak oihartzun handia lortzeaz gain, erregen aldeko iruzkin ugari sorrarazi zituen Aiurri.eus gunean bertan.



Aiurri eskuragarri:
Etbez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Errefusarako edukiontzi grisa jarriko dute laster

Datorren urtarrilaren 21etik aurrera errefusarako edukiontzi grisa Andoain osoan ezartzen hasiko dira, udaberrian proba modura Olagainen, Sorabillan eta Alejandro Calongen txertatu eta gero. Edukiontzi berria organikorako txartel berarekin irekiko da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Txipadun edukiontzia izango da, eta orain arte organikoa zabaltzeko txartel berdinarekin zabaltzeko ahal izango da. Bi hezitzaile arituko dira herriko hainbat gunetan beharrezko informazioa zabaltzen.

Aurrerantzean hauexek izango dira indarrean izango diren edukiontziak:

- Grisa | Errefusa.
- Urdina | Papera.
- Horia | Plastikoa.
- Marroia | Organikoa.
- Iglu delakoa | Beira.

Papera, plastikoa, kristala edo organikoa ez den hondakina grisean bota beharko da.

Organikoari dagokion txartela bere garaian eskuratu ez zutenek, datozen egunetan gutun pertsonalizatua jasoko dute. Bertan argibideak eta txartel bana aurkituko dituzte. Eta, hartara, bi edukiontziak erabili ahal izango dituzte (organikoa eta errefusa).

Ekimena sustatu duten alderdi politiko guztiek garrantzia handia ematen diote ekimenari, gaikako bilketan ezinbestekoa baita goruntz egitea. Andoaingo datuak oso apalak dira: Birziklapen tasa %40an dago egun. Etorkizunean, gutxienez, %60ko gaikako bilketara iritsi nahi da.



Aurkezpen ekitaldia asteartean egin zuten, Udaletxean. Ezker eskuin Hernandez (Ganemos), Carrere alkatea, Mourinho (Irabazi) eta Zulueta (EH Bildu). AIURRI

Argibide guztietarako bi hezitzaile ibiliko dira Andoaingo kaleetan, puntu jakinetan. Herriar bakoitzak etxeko buzoian kanpainaren xehetasun guztiak jasoko ditu, eta baita informazio guztiaren datak, ordutegia eta tokiari buruzko informazioa ere.

PAPERA, PLASTIKOA, KRISTALA EDO ORGANIKOA EZ DENA ERREFUSAREN EDUKIONTZIRA DOA

Informazio gunen ibiltaria

- Urtarrilak 21, astelehena: 10:30-14:00 Ontza ondoan. 16:00-19:30 Bazkardo plaza.
- Urtarrilak 22, asteartea: 10:30-14:00 Merkatura. 16:00-19:30 Dr. Huitzi.
- Urtarrilak 23, asteazkena: 10:30-14:00 Daytona ondoan. 16:00-19:30 Nafarroa plaza.
- Urtarrilak 24, osteguna: 10:30-14:00 BM ondoan. 16:00-19:30 Bekoplaza.
- Urtarrilak 25, ostirala: 10:30-14:00 Zumea plaza. 16:00-19:30 Karrika.



Eraikuntza dotorea zen Barriolaenea. AIURRI

Barriolaneko etxea bota dute Kaletxikin

Eraisketa lanak jabeen kontura egin dira, eta ikusteko dago etorkizunean zer egingo duten lursail horretan

Erredakzioa ANDOAIN

Kaletxikiko 7 eta 9 zenbakidun eraikinak bota dituzte, urte berriarekin batera. Goikoplazatik aldamen behera abiatuta eta ezker aldera, Barriolaneko etxea esanda ezagutzen zen eraikina eraitsi zuten urtarrileko lehen egunetan. Bi hondeamakinek bizpahiru egunetako lana behar

izan zuten den-dena botatzeko. Bi familia, Barriola eta Sarasqueta, bizi izan ziren etxe horretan hainbat hamarkadatan, baino azken urteetan hutsik egon da. Hondamendi egoera deklaratu ostean, Barriola familiako jabeek eraitsi dute etxea. Ikusteko dago etxe berriak eraikiko diren, ala ez.



Goikoplazatik Kaletxikirako bidean paisaia eraldatu eginda. AIURRI

Celulosas eraikina ere Eguberrietan eraitsi dute

Papera sortzeko pasta egiten zen, XX. mende hasieraz geroztik. Lursaila Andoaingo Udalaren esku geratu da.

Erredakzioa ANDOAIN

Lizarkola pasealekuan, Arizpeola parajearen kokatzen den Celulosas edo "Portu" lantegi zaharreko hondakinak eraisten aritu dira azken asteetan. Papertegiaren eraikina eta bere

ondoan zegoen zentral hidroelektrikoa eraitsi dituzte, hain zuzen. Inguru hartan hondamendi egoera izendatu zuten 2014an, eta jabeek eraisteko bi hilabeteko epea eman zitzaizkien. Udalak erantzunik jaso ez zuenez,

berak eraistea erabaki zuen. Egunotan, eraisketa lanez gain, eraikineko hondakin guztiak makina berezi batekin txikitxi egin dituzte.

XX. mende hasieran ireki zen lantegia, papera sortzeko pasta mekanikoa egiteko helburuarekin. 2007an itxi zuten behin betiko.

Lursaila erabat utzita zegoela, espazioa Andoaingo Udalaren esku geratu da. Udalak berak etorkizunean zer egin erabaki beharko du.



Eraisketa lan handienak Eguberrietan egin dituzte. AIURRI

Parte hartze prozesu berria martxan

Udal agintaldi osoan egin bezala, Gobernu taldeak 2019ko aurrekontutik 150.000 euroko partida herritarrengandik jasotako proposamenak aurrera ateratzeko bideratuko du. Asteartean deitu zuten agerraldian eskaini zituzten xehetasun guztiak

Erredakzioa URNIETA

Udalak aurten ere herritarren esku jarri du ideiak eta proposamenak aurkezteko aukera. Eta horretarako, 150.000 euroko diru kopurua bideratuko ditu aurten, iaiz baino 25.000 gehiago. 9.951.850 eurotako aurrekontua aurreikusia dauka Udalak 2019arako eta beraz, guzti horren %1,5 herritarren parte hartze prozesura bideratuko da. Mikel Pagola alkatearen hitzetan, "urnietarren parte hartzea eta Urnietaren hobekuntza helburu dituen prozesua da hau". Dagoeneko ireki da hirigintza arloko proposamenak egiteko aukera epea: auzo eta kaleetan hobekuntzak egiteko, konponketak proposatzeko eta abar. Urtarrilaren 28an amaituko da ideiak aurkezteko epea.

Parte hartzeko moduak

- Etxe guztietan banatu diren informazio liburuxkako eskurria bete eta herriko hainbat tokietan jarritako kutxatan



Ostegun honetarako bilera irekia deitu dute, Lekaion. AIURRI

- Informazio guzietan: Urtarrilaren 18an Etxeberrri plazan (10:00-14:30) eta Guria tabernaren inguruan (17:00-20:00). Eta urtarrilaren 19an, kiroldegia kanpoaldean (10:00-14:30).
- Urnietako APP-aren bitartez.

Ez dago Etxeberri plazako jaiotza zapuztuko duen inor

Ezezagun batzuk txikitu eta gero, Magalek jaiotza berrezartzeko urnietar askoren laguntza jaso zuen

Erredakzioa URNIETA

Abenduaren 25ak argitu zuenean, bertan bizi direnek ezusteko handia hartu zuten. Egun batzuk lehenago Magale ikas komunitateak ipinitak jaiotza biziduna txiki-txiki eginda zegoen. Irudiak berehala zabaldu ziren, eta ordu batzuetan beste konturik ez zen izan Urnietan. Biharamunean iritsi zen erreakzioa, aurreko orduetan forma hartzen aritu zena. Ikastetxeak jaiotza berrezartzeari ekin zion, eta euren harriidurarako ikasle, guraso eta herrikide ugari laguntza emate-



Agustin Urretabizkaia. AIURRI

ra bertaratu ziren. Magalaren izenean Agustin Urretabizkaia esker ona adierazi zuen: "Egitasmoa ikasleena da. Pena handia hartu genuen txikitu zutela jakin genuenean, baina ikasleen eta gurasoen erreakzioa berehalakoa izan da. Harrituta gaude, ikasle eta guraso piloa gerturatu baita laguntza ematera. Automatizatutako hainbat figura ezin ditugu berrezarri, baina gehiena berreskuratu dugu."

Udalaren gaitzespena

Urnietako Udalak gertaturikoa irmoki salatu zuen, abenduaren 25ean bertan igorritako oharrean: "Onartezina eta ulertezina da gertaturikoa. Herriko gazteek bere borondate onenarekin herritar guztiei eskainitako jaiotza horrela apurtzeak ez du inolako azalpenik".

Udal aurrekontua hamar milioi eurokoa izango da 2019an

Gastu ahalmena handiagoa da, besteak beste, Aldunditik jasotako diruaren gorakadak ahalbideratuta

Erredakzioa URNIETA

Udal kiroldegi berria eraikitze-ko prozedurak martxan eta aurrekontua zehaztuta daude, Urnietako Udalak 2018aren amaieran urte berrirako Udal aurrekontu proposamena onartu zuen. Udalagintzak duen tresna garrantzitsu horren bidez, inbertsio gehiago egiteko aukera izango da. Eta Urnietako Udalak dagoeneko zehaztu ditu urte berrirako inbertsio berriak. Denera, 1,4 milioi euro izango direla aurreratu du eta egitasmoak hauek dira: Denda Berri jubilatuen egoitzaren atariaren eraberritzea, Txorita-

gaingo aparkaleku berria egokitze-ko lanak, larrialdi egoerentarako San Juan kaletik Plazido Muxika plazarako sarbidea egitea eta eta alokairu sozialera bideratzeko Udalaren jabetzakoa diren bi etxebizitza egokitzea.

Aurrekontuaz gain, pleno berean azpiegitura mailako bi erabaki gehiago. Lehena, kiroldegiko berrikuntza eta igerilekuko instalakuntzen eraikina bideratzeko obren pleguak eta, bigarrena, Eteneta San Juan plazarekin lotzeko igogailua eraikitze-ko obraren kontrataren esleipena.

PSE-EE Udal kiroldegia egitasmoaren aurka agertu da

Sozialisten egitasmoarekin bat egiten duten hainbat proposamen baztertu direla salatu du

Erredakzioa URNIETA

Urnietako PSE-EE kiroldegia eraberritzeko hartu den erabakiaren aurka agertu da. Consuelo Frutos bozeramailearen arabera, "sozialisten proposamena errealista da, merkeagoa, lehenago gauza daiteke eta gainera ondo doazen zerbitzuei eusten zaio. Besteak beste, terraza, solariuma edota kafetegi zerbitzuak". Gobernu taldeak urnietar guztien ekarpenak ez dituela kontutan erantsi du: "Mila urnietarretik

gora proposamen ezberdinen alde agertu ziren, hain justu gure ereduarekin bat egiten zutenak. Gainera, PNVko gobernu taldearen asmoa kirolarientzat bakarrik izango den kiroldegia eraikitzea da. Eraikuntza lanak denon artean ordainduko ditugu, baina zoritxarrez ez da denentzat izango". Bukatzeko, Urnietan azken lau agintalditan txosten ezberdinak egiten 100.000 euro xahutu direla kritikatu dute, "adreilu bakarra ipini gabe".

Kantoiko urdaiazpikoa

Eguberrietako loteriaz gain, kirol taldeek edota merkatariek zozketa ezberdinak antolatu ohi dituzte urteko sasoi honetan. Kantoitabernak, esaterako, urdaiazpikoa jokoan ipini zuen. Irabazlea Imanol Iruretagoiena izan zen, eta argazkian Juan Blanco tabernariarekin batera ageri da. Biak ala biak pozarren agertzen dira.



KANTOI



Olentzero eta Mari Domingi herrigunera iritsi zirenerako, dozenaka haur zain zituzten. AIURRI



Gutunak jaso zituzten, haurrek zuzenean saskian utzitakoak. AIURRI

Postalak bezala gordeko ditugun Eguberrietako irudiak



Adarra Olentzeroren etorreran ezinbesteko elementua da. AIURRI



Melchor erregearen lantaldea, Goikoplazan, kalejira egin eta gero. AIURRI



Egunari amaiera emateko, laguntzaileek Baltasar erregearekin taldeko argazkia atera zuten. AIURRI



Andoingo Udal Musika Eskolako hiru abesbatzek emanaldi berezia eskaini zuten, Berrozpeko kaperan. AIURRI



Olentzero eta Mari Domingiren lagun taldea handia da. AIURRI



Urnietako Etxeberri plazan haur parke dotorea ipini zuten. AIURRI



Olentzero eta Mari Domingi Urnietako kaleetan. AIURRI



Errege Magoen laguntzaile taldea, Urnietako San Miguel elizan. AIURRI



Kabalgatan irten eta opariak banatu baino lehen, taldeko argazkiak atera zituzten. AIURRI



Bide bazterretan dozenaka lagun bildu ziren, korrikalariei animoak eman asmoz. AIURRI



Super Lopezek etorkizuna ziurtatuta dauka, fikzioan eta lasterketetan. AIURRI

Urteari amaiera emateko lasterketa herrikoiak



Lazkano eta Azurmendi surflarientzat izan zen mozorro onenaren saria. AIURRI



Arin nagusitu zen, gizonezkoetan. AIURRI



Gurrutxaga izan zen irabazlea, nesketan. AIURRI




Jauregitarrak, umore onean. AIURRI




Patinaia taldeko kideak. AIURRI




Emakumezkoetan Ainhoa Jauregi nagusitu zen. AIURRI



Asier Martinez mutiletan nagusitu zen.



Igor Amantegi 3. helmugaratu zen. AIURRI



Amaia Martin 'marinela'. AIURRI



Xabier Perurena eta Goreti Amenabar.



Lasterketa hasi aurretik Urnietako korrikalari taldea irteteko prest zegoen. AIURRI

Lagunartean Adarran

MENDIZALETASUNA Urte berriarekin batera, hainbat mendizalek lagunartean Adarrara igotzeko aukera baliatzen dute. Urnietatik argazkiko lagun taldea igo zen. Tartean da Andoni Urbistondo kazetaria, eta bertatik bideo eta irudi ikusgarriak zabaldu zituen. Goizean goizetik Adarran izan zirenek paisaia ez ohiko eta ikusgarriaz gozatu ahal izan zuten.



ANDONI URBISTONDO

Allurralden garaile

ESKUBALOIA Kadete mailako Leizaran Urdina taldea etxeko Eguberrietako txapelketan nagusitu zen. Eta argazkian ikusten denez, lorpenarekin pozarren zeuden. Infantil mailan Errioxako selekzioa nagusitu zen eta jubenil eta senior mailatan, berriz, Malkaitz taldea. Talde ugari hurbiltzen dira Leizaran eskubaloitza antolatzen duen adiskidantzazko txapelketara.



JOXE MARI IGERATEGI

Herriarren aurrean garaile

ESKUBALOIA Abenduko azken larunbatean, UKEK Gabonetako Txapelketa antolatu zuen. Etxekoak bi mailatan nagusitu ziren, kadete mailako nesken eta senior mailako mutilen mailatan. Taldetik Eguberrietako txapelketaren arrakasta nabarmendu nahi dute, eta bereziki egun osoan zehar sortzen den giro ona. Euskal Herri osoko taldeak hurbiltzen dira, urtero.



JUAN CAR SAN

Zumeatarrak deitutako lehia

TRIATLOIA 10 kidez osatutako 5 taldek hartu zuten parte, 100x100 proban. Zumeatarratik hauexek izan ziren parte hartzaileak: Jon Indakoetxea, Mikelillo Arte, Jonatan Santano, Jon Ramos Gonzalez, Andoni Pili Illarramendi, Aitor Sarasola, Aitor Murua, Imanol Arruti, Iñigo Duarte eta Iker Etxezarreta. Yepa kluba nagusitu zen, Getaitri eta Zumeatarraren aurretik.



JON ZUGASTI



Juanma Morales tolosar-urnietarra, Tolosako Arramele auzoan duen Ernio zentroko instalakuntzatan. **AJURRI**

Andoni Urbistondo URNIETA

Ernio kontsulta dauka Tolosan, eta handik milaka lagun pasatzen dira urtean. Hilabeteetako itxaron zerrenda dute, gauzak txukun egiten dituztenaren seinale. Moralesek, ordea, meritua kentzen dio bere jardunari: “Gaixoaren sakrifizioak dakar mina desgertzea; gu laguntza ematera mugatzen gara”. Biologiaz gain, norbanakoen sineskerak eta egoera sozial ezberdinek minaren pertzepzioan duten garrantzia nabarmentzen du fisioterapeutak.

Nor da Juanma Morales?

Tolosan jaio zen 43 urteko hiritarra. Urnietan 20-21 bat urte daramatzat dagoeneko, Alicia emaztea bertakoa delako. Tolosan egiten dut lan, kontsulta batean. Fisioterapeuta naiz lanbidez.

Zure ikasketen laburpentxo bat?

Escolapios-en ikasi nuen, Tolosan, eta gero TAFID ikasketak egin (Teknikoa Kirol eta Heziketa Fisikoan). Nota hobetu behar nuen erizaintzan sartu ahal izateko, eta hala egin nuen, fisioterapiaren adarrean. Sorian hiru urte egin nituen ikasten (Espainia), gero praktikak han eta hemen, osteopatiako master bat... Txilen ere egon izan naiz, 4 urte,

Fisioterapeuta onenari saria

JUANMA MORALES 2018KO EUSKADIKO FISIOTERAPEUTA ONENAREN SARIA Tolosarra jaiotzez, Urnietara bildua azken bi hamarkadetan, 2018ko Euskadiko Fisioterapeuta Onenaren saria eman berri diote Juanma Moralesi (43 urte)

Frantziako osteopata batekin, lau-pabost aldiz urteko, joaten nintzen aldiro 10-15 eguneko egonaldiak eginez. Han hainbat ikastaro ere eman izan ditut, ez baitaude gurean bezain aurreratu. Espainia fisioterapia inbasiboan munduko erreferen-

“EZ DUGU MIRARIRIK EGITEN; OSATZE KASUEN %60-70A GAIXOAREN MERITUA DA, EZ GUREA”

tziatiko bat dela esango nuke (injekzio bidezko fisioterapia). 18 urtez geroztik ikasten ari naiz etengabe. Osteopatia master bat dut, Txilen beste bat, doktoretza eta gerrialdeko disko-herniari buruz tesia egiteko aukera eman zidan hirugarren master bat... Orain fisioterapia *inbasibo*ari buruzko beste master batean murgilduta nago buru-belarri. Fisioterapeuta jardunean arituta ere, ikasten jarraitzen duzu etengabe. Medikuntza arloan ezin duzu jardun eta kito. Nire leloa “mugitzen ez den ura usteldu egiten

da”, eta hala erakusten diet kontsultara etortzen diren guztiei. Louis Gifford aitzindaria izan zen gure garaiko fisioterapiari, eta hark nirea egiten dudana esaldia bota zuen: Minaren aurkako terapiarik onena mugimendua da.

“MUGITZEN EZ DEN URA USTELDU EGITEN DA. EZIN ZARA LANEAN JARDUN ETA KITTO”

Zer egiten duzu zure kontsultan?

Denetarik: ziztada lehorrak, elektrolisia, Maitland edo McKenzie metodoak, osteopatia teknikak...

Kontsulta dotorea daukazue Tolosan...

200 metro koadro ditu. Lehen txikiago batean egon ginen. Quiron Klinikari ere aritu izan naiz. Bertako eta Poliklinikako hainbat doktorerekin aritzen naiz elkarlanean, gaixo asko bidaltzen dizkigute. Ni traumatologian aritzen naiz, batez ere. Artikulazio arazoak aztertzen ditut, ukabileko mina, tendoiak, lunbaldiak... Eliteko kirolariak hartzen ditut, baina herritar xumeak ere bai, noski. Bidasoa eskubaloitako kanpo-fisioterapeuta naiz, Real Union-eko jokalariei batzuk ere baditugu, kirolari asko... Ebidentzian oinarritzen dena bilatzen dugu, tratamendu egokia egiteko. Alegia, zientifikoki eraginkorrak diren teknikak erabiltzeko joera dugu, ebidentziaren bitartez. Esate baterako, dagoeneko ez dugu ultrasoinurik erabiltzen, zientifikoki eraginkorrak ez direla frogatua dagoelako. Ekografiak erabiltzen ditugu gaixoarekin feed-back antzeko bat egiteko, alegia, bezeroak gure lanarekin ze hobekuntza eta aldaketa ematen ari diren ikus, sentitu dezan. Zaintziratuak, lepo minak, bizkarrekoak... sintoma ezberdinak dituen gaixoa etortzen da. Guk hipotesi bat egiten dugu, eta min hori sor dezaketen zergatiak baztertzeko saiakerak egiten gara, banan-banan, mina sortzen duen jatorria hobeto identifikatzeko.

Bezero askok eminentzia baten pare jartzen zaituzte...

Nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz, eredu biopsikosozial batean oinarrituta. Hitz potoloa da, baina ulerterraza. Gaixoen biologiari garrantzi handia ematen diogula esan nahi du, eta horregatik ematen diogula garrantzi handia ekografiari. Beste modu batera esanda, orkatilan bihurritua jasan duen pertsonari, bihurritu hori aztertzeaz gain, zerk eragin duen aztertzen saiatzen gara. Artikulazio mailan beste lesio batzuk egon daitezke, neurologia alorrean bezala... Psiko-a ere aintzat hartu behar da, gaixoak bere sineskerak dituelako minaren inguruan. Askok sufritu badu, ez dio ga-



"Guk ez dugu miraririk egiten, laguntzeko gaude". AIURRI

rrantzirik emango lesio arin bati. Inoiz minik izan ez badu, garrantzi handia emango dio edozein lesio txikiri. Arlo sozialak ere badu bere garrantzia. Bulego batean lanean ari den funtzionarioak mina badu baja hartuko du. Autonomo batek, aldiz, mina jasateko modukoa bada, lana egingo du, lana egin behar duelako. Era berean, minaren sentipena asko aldatzen da Andaluzian edo Urnietan bizi.

Elektrolisia edo EPIa delakoa erabiltzen duzulako zara ezagun. UKE eskubaloiko hainbat jokalaririk belurtuta joan omen izan dira zure kontsultara...

Baina kontent irtengo ziren, ezta? EPIa zera da: korrante galbaniko bat aplikatzea gaixoa-ri, orratz baten bitartez. Mina sortzen du, bai, baina onura asko ekartzen ditu. Halako eragin mekaniko eta kimikoa eragiten du lesioan. EPI horretaz gain neuromodulazioa ere egiten dugu, nerbioak bilatu eta estimulatu, gaixoak dituen sintomak bilatzeko.

la ezinezkoa da zure kontsultan tokitxo bat bilatzea.

Nire agenda bete-betea dago. Hilabeteetako itxaron zerrenda

"MINAREN AURKAKO TERAPIA ONENA MUGIMENDUA DA, ZIOEN LOUIS GIFFORD AITZINDARIAK"

dugu, baina ez dakit horren arrazoi zehatza.

Aitortu nahi ez baduzue ere, agerikoa da zure lana ondo egiten duzulako joaten dela hainbeste jende zure kontsultara, ezta?

Lehen esandakoa errepikatuko dizut: Nire lana ondo egiten saiatzera mugatzen naiz.

Eta zein da, zehatz-mehatz, zure lana?

Normalean azterketa azkar bat egiten diot bezeroari, eta gero lankideek hartzen dute kasu bakoitzaren ardura. Langile guztiak hilean behin edo bitan batzartzen gara, demagun ostiral arratsaldetan, eta gure artean halako azterketa klinikoa egiten dugu. Alegia, batek besteari bizkarra, lepoa artatu, eta hausnartu, fisioterapeuta guztiak lan molde berean jardun gaitezen. Gerta liteke nik ikastaroren bat egin izana, eta ikastaro horretan ikasitakoa lankideei azaltzea. Beti gure jarduna hobetzeko asmoarekin.

Zenbat langile zarete?

Une honetan zazpi gara, eta kontsultatik egunero 50 lagun baino gehiago pasako dira. Nik halako azterketa arinagoa egiten diet askori. 20-25 bat bezero artatzen ditut, egunero.

Zure etxekoek diote ordu asko sartzen dituzula, eta lo ordu gutxi egin. Egia?

Loarena jaiotzekoa da. Maite dut nire lana, eta normala da orduak eskaintzea.

Zergatik zara ogibidez fisioterapeuta?

Gaztetan arazo batzuk eduki nituen belaun eta hanka batean, eta orduan egin zidaten azterketa edo diagnosia ez zen oso zuzena izan. Horrek mundu honetara bideratu ninduen, jendeari laguntzea atsegin dut, gaizki dagoen norbait osatzen ikustea... Gainera, kasuen %60-70 guregana etortzen den gaixoarenekin. Alegia, ez gurea. Guk ez dugu miraririk egiten, laguntzeko gaude. Gaixoak sakrifizio batzuk egin behar dituela onartzeko prestutasuna behar du, baina baldin badu, guk ematen dizkiogun ariketak egiteko borondatea erakusten badu, asko aurreratzen dugu. Gaixoak bere lesioan eta tratamenduan inplikatzeko da gure erronka.

Atsegin ez duzuen zerbait izango da...

Ez zait gustatzen ondo menderatzen ez ditudan jardueretan murgiltzea. Neurologia, adibidez.

Sari potolo bat jaso berri duzu: Euskadiko Fisioterapeuta onenaren saria. Kontent?

Bai, bai, nola ez. Euskadiko Fisioterapeuta Eskolak urtero Fisioterapeuta Onenaren saria ematen du, eta 2018koa niri eman didate. Goretti Aranburu Bilbo-

"KIROLA OSO GUSTUKO DUT, ASKO MOTIBATZEN NAU TALDEETAN EGOTEAK"

ko lankide batek proposatu zuen nire izena. Arrazoi zehatzik ez daukat, baina 2018an nire doktoretza-tesia Fisioterapiako mundu mailako Kongresuan aurkeztu nuen, eta seigarren tesi bisi-tatuena izan zen. Horregatik izango da, agian. Fisioterapia garaikidean nire jakintza handitzeko grina mantentzen dut, eta hori ere aintzat hartuko zuten. Fisioterapia garaikidea eta fisioterapia aurreratuagoa uztartzeko erronkak erakartzen nau, ekografia bezalako bitartekoekin. Niri eman didate saria, baina beste askok ere merezi zuten. Jende askok egiten dugu lan fisioterapia sustatzeko, fisioterapia Osasun arloan errotuagoa egon dadin, egun ez baitago. Guk geuk ere errua badugu jardun horretan, intrusismoa dela-eta. Ikasketak ez dituen jendeak ezin du baditugunon maila berean egon. Baina ikasketak dituztenen artean ere, bada jenderik erabateko bermerik ez duten teknikak erabili zileak direnak. Horiek alboratzen joan beharko genuke pixkanaka. Ezagutu izan dut kontsultara etorri, eta aditueta adituena aho bete hortz uzteko moduko tekniken berri ematen dizuten gaixoak... Seriotasunez jokatzeko ez badugu, ez gaituzte inoiz lanbide seriotzat hartuko. **Gorputza zaintzea poltsikoaren osasunaren baitakoa dela esan izan da. Alegia, sosak daudenean bakarrik gogoratzen garela minari erremerdia ematea. Hala al da?**

Aldaketa gertatu da ohituretan. Lehen apenas ematen zitzaion garrantzia gorputzeko minari. Gaur egun bai, gero eta gehiago. Batzuk handia ematen diete, beste batzuk gutxi. Batez beste-ko bat egingo bagenu, oraindik gure gorputzari behar adina arretarik ez diogula eskaintzen esango nizuke. Guk pautu batzuk ematen dizkiogu guregana etortzen denari, baina hortik aurrerakoa, lesioan eta tratamenduan inplikatu edo ez, gaixoarenekin dago.

Erronkarik geratzen al zaizu?

Mordoa. Kirola oso gustuko dut, asko motibatzen nau taldeetan egoteak, nahiz eta alor horretan diru askorik ez egon, futbolearen izan ezik. Aukera emanez gero, eskubaloia hautatuko nuke, mugimendu eta kontaktu handia dagoen diziplina delako. Eta askoz ere itxurakeria gutxiago duena. Asobal Ligan aritzen den jendea artatzen dugu gurean, eta herritar arruntak dira, elitean arituta ere.

Bidasoa taldea aipatu duzu. Esne-mamitan dabilta haiek orain. Zure meritua ere izango da, ezta?

Ekarpentxoaren egiten diot Ricardo Jimenez buru den mediku atalari, baina Jacobo Cuetara eta Borja Burguete entrenatzaileak eta bereziki jokalariek funtsezkoa da.

Bukatzeke, aholkuren bat fisioterapeuta izan nahi duenarentzat.

Ikas dezatela, formatu, eta lana egin.



Ezkerrean, zutik, lehena da Morales. UKEko lehen taldea, iaz. AIURRI

"Oso gustuko dut kirola"

Elkarrizketan aipatzen duenez, profesional mailako kirolarietako geroz eta hartu eman gehiago du. Urnietan, UKE eskubaloiko taldean murgilduta dabil. Iazkoa da argazkia, lehen taldeak denboraldi gogoangarria egin zueneko.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 10**URNIETA Aurkezpena**

Urnietako Udalak 150.000 euroko parte hartze prozesu berri bat abian jarriko du. Prozedura azaltzeko bilera irekia deitu du.

19:00, Lekaio.

OSTIRALA 11**ANDOAIN Dantza filma**

Dantza film berria eskainiko dute Andoainen. Urki dantza taldeko kideek parte hartu dute bertan.

20:00, Bastero.

URNIETA Lehiaketa

Diaporama lehiaketa, gazteei zuzendurikoa. Argibide gehiago 15. orrialdean.

Parte hartzeko azken eguna:
Urtarrilak 25.

ALKIZA Erakusketa

Arri Zugarramurdi andoaindarraren argazki eta bideo erakusketa, "Natura&Artea" ekimenaren baitan, Alkizako udaletxeko ganbaran.

Urtarrilean zehar, Fagus Alkiza.

LARUNBATA 12**ESKUALDEA Manifestazioa**

"Orain presoak" lemapean, Sare herritarra mugimenduak deituta, manifestazioak Bilbon eta Baionan. Bus zerbitzua Bilbora, eskualdetik.

14:45, Makaldegia. Andoain.

14:45, Matxoko geltokia. Urnieta.



Elikagai bilketa Andoaingo supermerkatuetan egiten ari dira. AIURRI

ANDOAIN Sahararen aldeko elikagai bilketa

Sahararen aldeko Euskal Karabana martxan da Andoainen, "Piztu Itxaropena" izenburupean. Jasotako elikagaiak 2019ko otsaila aldera irtengo dira Euskal Herritik, Tindufeko kanpalekuetarako norabidean. Hurria-Sahara azken urteotan lan handia egiten ari da, Saharako errefuxiatuen alde.

Urtarrilean zehar.

ASTELEHENA 14**ANDOAIN Ipuin kontaketa**

Pentsiodunek asteleheneroko elkarretaratzea egingo dute.

11:45, Goikoplaza.

OSTIRALA 18**URNIETA Ipuin kontaketa**

Ipuin kontaketa saio berria, Marisa Taberneroren eskutik.

17:30, Lekaio.

ANDOAIN Inauteriak

Otsailaren 28an hasi eta martxoaren 3ra bitarte, Inauteriak Andoainen.

Basterok proposamenak luzatzeko epea zabaldu du.

Proposamenak aurkezteko epea:
Urtarrilak 18. Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Frederic Gutierrez Bardenen 'Izakia eta itzalen artean' erakusketaren irekiera, datorren otsailaren 23ra arte zabalik izango dena. Ordutegia ohikoa izango da.

19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO****Dantza**

Ostirala, 11: 20:00.

El regreso de Mary Poppins

Larunbata, 12:

17:00.

Igandea, 13: 17:00.

Viudas

Larunbata, 12:

19:30; 22:00.

Igandea, 13: 19:30.

Astelehena, 14:


19:30; 22:00.

I kuste eguna.

Kutsidazu bidea,

Ixabel

Ostirala, 18: 20:15.

**URNIETA****SAROE****Ana y Bruno**

Igandea, 13: 17:00.

La pequeña bruja

Igandea, 20: 17:00.

Condorito

Igandea, 27: 17:00.

SINOPSISIAK

**Viudas**

Zuz.: Steve McQueen. **Herr.:** Erresuma Batua (2018). **Iraupena:** 129 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Emakume ezberdinak bat eginda

Elkarren artean zerikusirik ez duten lau emakumeren istorioa kontatzen da. Guztien senarrak

hilda daude, eta horien ekintza kriminalen ondorioz zorrak emazteek kitatu behar dituzte.

Ana y Bruno

Zuz.: Carlos Carrera. **Herr.:** Mexiko (2017). **Aktoreak:** Galia Mayer, Silverio Palacios, Marina de Távira... **Iraupena:** 95 min.

Alegiazko izakiak lagun

Jakingura handiko gaztetxoia da Ana. Choco izeneko bere txakurraren bila ari dela, Bruno izeneko munstroarekin egiten du topo. Hark alegiazko beste izaki batzuk aurkezten dizkio.

Neskatoak ama giltzaperatuta aurkituko du bizi diren ospitale psikiatrikoan, eta bere lagun berriekin laguntza bila abiatuko da aitaren bila. Abentura zirrargarriak biziko dituzte.

Eguberriak Aiurri.eus webgunean

Argazkiak



Bideoak



Albisteak

AIURRI.EUS**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
**Eukene Ariztimuño
Balentziaga**
Urtarrilaren 1ean
gure etxeko
bihurriak 9 urte
bete zituen. Jarraitu
orain arte bezain
alai eta umoretsu.



ANDOAIN
**Elene Idigoras
Alfageme**
Igaro da
abenduaren 23a...
Zorionak maitia.
Egun zoragarria
pasa genuen. 11
mila muxu potolo!!!



ANDOAIN
Izaro, Aimar, Maitane
Dagoeneko urtetxo bat! Zorionak!
Baina etxean ez da urtarileko bakarra.
Zorionak Aimar eta Maitane! Muxu erraldoi
bat hirurontzat! Amatxoren kuadrilla.



ANDOAIN
Julen
Urtarrilaren 15ean
11 urte beteko
dituzu!
Zorionak eta ondo
pasa zure
egunean.
Muxu handi bat.



ANDOAIN
Oier Ichaso
Zorionak Oier,
urtarrilaren 2an 11
urte bete zenituen!
Muxuak Enara,
amatxo, aitatxo eta
familiararen
partez!



ANDOAIN
**Ekiñe Otaño
Ibañez**
Gure Ekiñek 17
urte jada!!!
Zorionak eta
muxu handiak
etxekoan
partetik!!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 12 eta igandea 13
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 12 eta igandea 13
AIZPURI: Latxunbe Berri, 11.
943 336 077. Astigarraga.
Gauetz, bi herrietan: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

Gazte abenturazaleei zuzendutako lehiaketa

Buruntzaldean bizi, ikasi edo lan egin eta 2003a baino lehenago jaiotako gazte bidaiazaleei zuzenduriko diaporama lehiaketa aurkeztu dute. Urnietako Udalak deitu du bigarren urtez jarraian, eta 100 eta 300 euro arteko sariak iragarri dituzte

Xabier Lasa URNIETA

Bidaaien diaporama lehiaketa antolatu du Udaleko Gazte Informazio Puntuak, Urnietako gazteen mugikortasuna sustatzeko asmoz. “Gazteek azken urteotan egin dituzten bidaietan bizitako esperientzia interesgarrien berri” eman dezaten bultzatu nahi da lehiaketarekin, Josune Mayoz Sustapen saileko arduradunak, Olatz Urretabizkaia Gazte Informazio Puntuako teknikaria eta David Rosco Sustapen saileko arduradunak agerraldian adierazi zuten.

Argazki, bideo, power point edo aurkezpenak egiteko erabiltzen diren bestelako plataformak erabili daitezke diaporama aurkezteko. Parte hartzaileek 15 urte baino gehiago eduki behar dituzte; Buruntzaldean erroldatuta beharko dute egon, edo, bertan ikasle edo langile izan. Urtarrilaren 25ean amaituko da lanak aurkezteko epea, eta Lekaio kultur etxean, Gazte Informazio Puntuak nahiz Urnietako Udalen webgunean egin ahal izango da. Hona zein den jarraituko den hautaketa prozesua: lan guztien artean hiru hautatuko dira, originaltasuna eta kalitatea kontuan izanik. Hiru horiek beraien diaporama aurkezteko aukera edukiko dute, eta 100



Josune Mayor Udaleko Sustapen saileko arduraduna, Olatz Urretabizkaia Gazte Informazio Puntuako teknikaria eta David Rosco Sustapen saileko zinegotzia. AIURRI

euroko saria jasoko dute. Ondoren, hiruen artean bat hautatuko da, zenbait irizpide jarraituta: batetik, aurkezpenaren erakargarritasuna, arintasuna, argitasuna eta horretarako erabilitako materiala, eta bestetik,

**URTARRILAREN
25EAN AMAITUKO DA
GAZTE INFORMAZIO
PUNTUAN LANAK
AURKEZTEKO EPEA**

erakusketaren kalitatea eta originaltasuna. Azken irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Epaimahaikideak

Sustapen saileko zinegotziak, Haurtzaro eta Gazteria saileko teknikariak eta gazte informazio sailek ez ezik, Urnietako bi herritarrek osatuko dute epaimahaia. Epaimahaikide izan nahi duten urnietarrek urtarilaren 11 bitarte edukiko dute aurkezteko aukera. Zozketa bidez aukeratuko dira horiek.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



AZKEN BERBA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Aztoramendua

Opor giroa gripea bezain kutsagarria da. Nahi gabe ere, lanerako gogo apaldu egiten da. Ez dator gaizki, dena esatera, lasaitasun apur bat ia 24 orduz eta asteko 7 egunetan informatzeko bokazioa duenarentzat. Patsada giro hori behin baino gehiagotan hautsi da, ordea, Eguberrietan.

Abenduaren 25ean Urnietatik iritsi zen notizia. Etxeberri parkeko jaiotza txikitu zutela eta, hango gertaeren berri eman genuen. Abenduaren 26an Urnietara Magalekoen lekukotza jasotzera bertaratu ginen. Gizarte mailako krisi txikia eragin zuen arduragabe batzuen jokabide zatarrak. Ordu gutxira, herritar askok lezio ederra eman zuten: Ez dago Etxeberriko parkeko Eguberrietako jaiotza zapuztuko duen inor.

Egun horretan bertan Andoainen ika-mika sortu zen sare sozialetan, Zumea kaleko Olajaunako tabernariaren eta Andoaingo Udalaren artean. Laburbilduz, tabernariak bere eskubideak defendatu nahi zituen, eta Udalak bueltan betebeharrak badituela gogorarazten zion. Gutxiegi hitz egin zen, egun horietan, tabernaren asteburuko ordu txikietako jardueraren aurkako salaketarekin azkenerraino iristeko prest dauden 17 etxebizitzatako bizilagunak. Horien eskubidea besteen bezain zilegizkoa da.

Internet sareak tarteka eragiten duen aztoramendu horretan okerrean iristeko zegoen. Urtarrilaren 5ean ekaiza digitala Andoainen lehertu zen, neurri eta muga guztiak gaindituz. Ordu zailak Baltasar Errege Magoa, haren senide eta antolatzaileentzat. Krisia, neurri handi batean, Meltxorren eta Gasparren gutunarekin bideratu zen. Komunitateak hori behar zuen. Argitalpenak sortu zituen iruzkinen artean, krisiari amaiera eman zion gutuna bikain analizatu zuen Xabat izenekoak: "Horrela egiten dira gauzak. Herri heldu bat gara".



AZKENA

LEIRE ESNAOLA ORBEGOZA URKI DANTZA TALDEA



Dantza filma Basteron ikusgai

Eguzkiaren goizeko lehen izpiekin hasi eta gauaren iluntasunean elurpean emaitzen den bizitzaren zikloa erakusten du Dantza filmak. Telmo Esnal zarauztarraren fikziozko hirugarren filma da eta zazpi urteko prozesu luzearen ondoren, azkeneko Zinemaldiko Sail Ofizialean estreinatu zen. Estetika eta ikus-entzunezkoen arduraduna Koldobika Jauregi eskultorea izan da eta Juan Antonio Urbeltz koreografo eta folklore kontuetan adituak ireki zizkion dantzaren munduko ateak zuzendariari. Ezin ahaztu, ordea, maisu hauekin lankidentzan ibilitako lan taldea eta nola ez, filman parte hartutako berrehun pertsonatik gorako dantzari taldea. Horien artean, Urki dantza taldeko andoaindarrak, Euskal Herriko eta gure mugetatik haratagoko hainbat

txokotan filma grabatzen ibilitakoak.

Lagun batek hitz gutxitan laburbildu zidan moduan, filma gure erro eta errituak dantzaren bitartez interpretatzeko ariketa da. Dantza tradizionalak eta Urbeltzek urteetan zehar sortutako koreografiak lurrari, uztari eta tradizioei uztartu eta elkarriketarik ere behar ez duen istorioa sortzen da. Esnalen hitzetan, dantza da protagonista, hitzak ere soberan daude.

Zentzumenekin jokatzeko da. Dantza oholtza gainetik atera eta haratago eraman da,

**DANTZA FILMA
OSTIRAL HONETAN
ILUNTZEKO 20:00TAN
BASTERON IKUSGAI
IZANGO DA**

paisaia txundigarrietan grabatuz. Filma naturarekin elkarlanean sortu da, urtaroei, eguraldiarekin eta agerleku bakoitzak eskaintzen zuen xarmarekin jokatu. Gertuko dantzariak adierazi zigutenez, gaueko ordu txikitik grabatu behar izaten zituzten zenbait eszena. Baina hain da zoragarria emaitza!

Hitz gutxi dituen ordu eta erdiko pelikulan ezinbesteko papera hartzen du musikak ere. Bidean utzitakoak hasieratik gogoraraziz, dantza munduan ibiltzen garenoi hain ezagunak egiten zaizkigun doinuek eta hauek

**FILMEAN AGERTZEN
DIREN BERREHUN
DANTZARIEN ARTEAN
DAUDE URKI DANTZA
TALDEKO KIDEAK**

markatutako erritmoak haritzen dute filma. Izan ere, garbi ikusten da aitzurrarekin lurra lantzean sortzen den hotsa nahikoa dela erritmoa markatu eta dantzan hasteko.

Dantza zein egoera bakoitzerako sortutako jantziak bereziak dira oso. Askotan ikusitako dantzari jantziez haratago, dantza bakoitzak adierazten duena islatzen saiatzen dira diseinuak: ezpata dantzako mandeuliak, zinta dantzako zilbor-hesteak... Jantzi bereziak eta ikusgarriak dira eta nabarmentzekoa da hauen atzean dagoen lana.

Herri baten istorioa kontatzen duen filma herrian bertan ikusteko aukera izango dugu ostiral honetan. Aurpegi ezagunak eta ikus-entzunezko zirraragarriak ikustera animatu nahi nituzke andoaindarrak, merezi du eta. Prozesu luze baten hasieran ereindako haziak eman du azkenean bere fruitua.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Datorren
Aiurri
astekarian:**

**Orbitak,
sateliteak
eta pasioa
Ignacio Tanco
urnietarraren
eskutik**